

2006KO AZAROAREN 21EKO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko azaroaren hogeita batean, iluntzeko zazpi terdietan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2006ko urriaren 11n egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2006ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 9 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA BERROGEITA ZORTZI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI euro eta BERROGEI zentimo (148.779,40 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 455 zbk.dun esped.: bere heriotzaren zioz, 2006ko azaroaren 7an, zerbitzutik baja ematea.
- 592 zbk.dun esped.: astean 5 egunetan eta egunean 2 ordutatik astean 5 egunetan egunean 3 ordura zerbitzua gehitzea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15a izango da.
- 714 zbk.dun esped.: astean egun batez eta egunean 2 orduz zerbitzua ematea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 775 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 69,40 € ematea, urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

Telealarma.-

- 14 zbk.dun esped.: telealarmaren instalaziorako 53,77 € eta honen mantenimenduko gastuetarako urtean 57,29 €tako dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %75a da.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordetik egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, honako dirulaguntza hauek ematea erabakitzen du.

- Astotxo festa, eguberri eguneko jaiotza biziduna eta errege kabalgata.-

Astotxo festa, eguberri eguneko jaiotza biziduna eta errege kabalgata ekintzak antolatzen dituen taldeari, eta talde honen ordezkari gisa Miren Ormazabal Sukiari, jarduera horiek aurrera eramateko arropa berriak egiteko ohialak erosteko, mila eta berrehun (1.200 €) euro.

- Udalerriko kultur elkarteei dirulaguntzak.-

2006ko ekitaldiengatik herriko kultur taldeei dirulaguntza hauek ematea:

KULTUR TALDEA	DIRULAGUNTZA
Antzar Gazteak	2.347,00 €
Lazkao abezbatza	765,00 €
Oin Arin	2.230,40 €
Xanbe abesbatza	300,00 €
Kantaka abesbatza	600,00 €
Txistulariak	620,00 €
Azki	300,00 €
Monja Zistertarrak	373,00 €
GUZTIRA	7.535,40 €

- Udalerrikoak ez diren kultur taldeei dirulaguntzak.-

Udalerrikoak ez diren kultur taldeei honako dirulaguntza hauek ematea:

- Argi Berri bertso eskolari hiruehun (300 €) euro.

V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

Josetxo Imazen Oroimenezko Lasterketa.-

Iñaki Imazek, Txindoki Atletismo Taldearen izenean, "Josetxo Imazen Oroimenezko VI. Lasterketa"rako eginiko dirulaguntza eskaera ikusirik eta Kiroletako Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak zazpiehun eta hogeita hamar (730 €) eurotako dirulaguntza ematea erabakitzen du.

San Mioletako Pelota Txapelketa.-

Lazkao Kirol Elkarteko Pelota Sailak San Mioletako eskolume eta helduen esku pelota txapelketarako egindako dirulaguntza eskaera ikusirik eta Kiroletako Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak berrehun eta hirurogieta hamar (270 €) eurotako dirulaguntza ematea erabakitzen du.

Udalerriko kirol elkarteei dirulaguntzak.-

2006ko ekitaldian udalerriko kirol taldeei ematekoak diren dirulaguntzen inguruan udalaren kirol batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako dirulaguntza hauek ematea onartzen du:

<u>KIROL TALDEA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Futbol taldea	5.906,00 €
Pelota taldea	2.723,00 €
Igeriketa taldea	464,00 €
Areto futbol gizonetzkoena	1.147,00 €
Atletismo taldea	1.007,00 €
Mendi taldea	983,00 €
San Benito areto futbola	567,00 €
GUZTIRA	12.797,00 €

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortzi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.